

# txi kitto!



**ARATOSTEAK 2017**



### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

### Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



# Txixis teak

✓ Jaimitok esaten dio bere aitari:

- Aita bi berri ditut, bat ona eta bestea txarra.
- Zein da ona?
- Mateko azterketan 10 bat atera dut.
- Eta orduan, zein da txarra?
- Lehenengoa gezurra zela.



Amaia

✓ Euskaldun

eta ingeles  
bat  
igerilekura



joaten dira eta ingelesak  
esaten du :  
- Help ,help.  
- Ez, bakarrik dut txanpu.

✓ Zikoina batek 95 urteko  
ume bat darama eta umeak  
esaten dio:  
- Onartu beharko duzu  
galduta zabiltzala.

Asier



✓ Soldadu batek  
galdetu dio beste bati:  
- Zertan ari zara?  
- Hemen, emazteari  
idazten!  
- Eta zergatik idazten  
duzu hain poliki?  
- Nire emazteak ez  
dakielako azkar  
irakurtzen!

Malak

✓ Mozkor batek esan dio lagunari:

- Aizu, 1. mundu gerran jefek esan zuen: denak  
lurrera!
- Eta ni izan nintzen zutik gelditu zen bakarra!!!
- Eta hori zegatik?
- Alkohol botila estali gabe neukalako poltsikoan!



✓ Ume batek bere aitari:

- Aita, aita, aita! Utziko al didazu telebista ikusten?
- Bai, baina piztu ez!



Meryem

# txis teak



- ✓ Kartzelara iritsi berria den batek galdetzen dio beste bati:
  - Eta zu zergatik zaude hemen?
  - E z didatelako ateratzen uzten.



- ✓ Zer esaten dio ipur-maisail batek besteari?
  - Gure artean usain txarreko zerbait dago.
- ✓ Mutil batek beste bat ikusten du oinetako batekin hitz-egiten eta esaten dio:
  - Zergatik ari zara oinetako batekin hitz egiten?
  - Zapatilan CONVERSE jartzen duelako

**Esmael**

- ✓ Bazen zoroetxe bat. Egun batean, hango zuzendariak galdetu zion zoro bati:
  - Zer egingo zenuke sudurra kenduko banizu?
  - Ba ez nukeela ikusiko.
  - Baina nola ez zenukeela ikusiko?
  - Bai, ezin izango nukeelako betaurrekoak sudurrean jarri.



**Gorka**

- ✓ Gizon bat kaletik paseatzen ari da eta ate bat ikusten du. Atearen gainean txartel bat dago eta jartzen du: Aztia. Gizonak atea jo zuen eta orduan esan zuen aztiak:
  - Nor da?Gizonak esan zuen:
  - Zein azti txarra zaren, ezta?



**Maite**

- ✓ - Riiiiiiiiing!
  - Nor da?
  - Ba al dago Agustin?
  - Ez, incomodin nago.
- ✓ Mutil bat hain baxua, hain baxua zenez, kanika bat hartu zuenean esan zuen:
  - Mundua nirea da!!!

**Iñaki**

- ✓ Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:
  - Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez dute usainik.
  - Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
  - Ppppprrrrrrrrrrrr!
  - Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
  - Ipurdian?
  - Ez, gizona, sudurrean.



- ✓ - Ama, gaur ez dut ikastolara joan nahi.
  - Zer gertatzen zaizu ba, Aitor, seme maitea?
  - Ba, hasteko logalea daukat, gero, aspertzen naizelako eta azkenik nire ileaz barre egiten dutelako.
  - Badakizu zer esaten dizudan? Joan behar duzula. Lehenengo arrazoa: zure eginkizuna delako, bigarrena 35 urte dituzulako eta hirugarrena ikastolako zuzendaria zarelako.

**Julen**

# Denborapasak

## HITZ-ZOPA

### ARATUSTEAK

B	E	J	Ñ	B	E	G	K	C	T
G	T	S	H	M	R	R	A	X	K
N	X	Z	K	K	Ñ	T	N	S	M
Ñ	K	A	J	O	T	E	U	D	V
J	A	K	G	S	G	K	D	F	S
Z	R	U	A	Ñ	S	T	L	I	R
C	R	Z	C	Z	Z	F	A	D	A
V	O	A	Ñ	M	T	I	O	G	X
E	T	H	A	B	Z	R	J	R	V
A	A	A	R	B	S	P	A	O	Z
H	Ñ	R	P	V	T	X	T	H	S
O	T	R	C	U	J	C	N	Q	Q
R	K	A	L	D	T	G	Ñ	N	C
L	P	K	N	R	G	L	Q	I	G
V	K	Y	I	C	C	L	S	R	Ñ


### ATORRAK

HARTZAK  
JOALDUNAK  
ZAKUZHARRAK

## ASMAKIZUNA

TXALEKO ZURIZ  
ETA FRAKA BELTZEZ JANTZITA,  
HEGAN EGITEN EZ DUEN  
ITSASOKO HEGAZTIA

## ARATOSTEAK



### HORIZONTALA:

Zer ospatzen da Eibarren otsailaren 24an?

### BERTIKALA:

- Nola deitzen dira Eibarko baserri eta kaleetan zehar, Kezka dantza-taldeak egiten dituen aratosteetako dantzak?
- Nola janzten dira eibartarrak egun horretan?
- Koko-marrua pertsonaia umeak ..... erabiltzen zen



## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Aimar Garcia** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Coliseoko emanaldi baterako 4 sarrera eraman ditu Aimarrek etxera. Zorionak!



## 7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK MARTXOAK 20 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena .....

Adina ..... Tel.....

# Denborapasak


## ZAZPI DESBERDINTASUNAK



## FUTBOL JOKALARIAK

V	M	S	O	I	R	S	O	B
Y	V	E	L	A	U	A	D	A
P	E	U	S	A	K	S	L	L
Q	I	Y	R	S	L	D	A	E
C	N	E	O	A	I	X	N	Y
S	Z	W	L	R	S	Ñ	O	J
N	N	A	M	Z	E	I	R	G

## LABIRINTOA



# Aratosteak argazkitan



# Arrateko Andra Mari



# Aldatze ikastetxea








J.A. Mogel ikastola



Urki zu ikastetxea



# Amaña ikastetxea



# La Salle ikastetxea






## Kaldereroak



## Zapatuko giroa



## Playback lehiaketa







Azken hilabete honetan hiru ekintza egin ditugu **ALDATZE** ikastetxean: Danborrada, Santa Ageda eta, otsailaren 4an, Aldatze Denok Gara. Larunbat horretan tailerrak, bisitak, luntxa... antolatu genituen. Ikasle ohiak, gurasoak, ikasleak, irakasleak eta gurera hurbildu nahi izan zuten guztiak egun zoragarria pasatu genuen.



**ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxean buru-belarri jardun dugu aratosteetan. Aurten gaia librea izan da eta gurasoek lan handia egin duten eskola apaintzen. Euskal dantzak entsaiatzen ibili ginen eta gurasoek txokolate goxoa prestatu ziguten aratosteetako azkeneko egunerako. Horrez gain, irrati-saioak ere izan ditugu, eta gure ikasleek saio benetan politak egin dituzte.



**LA SALLEKO** ikastetxeko 1go, 2. eta 3. mailakoak Coliseora joan ziren "Yugo eta Lala" pelikula ikustera. Pelikula polit hura ikusten arratsalde atsegina pasa zuten. Horrez gain, Enkarni Genua etorri zitzaigun eskolara "Itsasminez" antzezlanara aurkeztera. Han egon ziren belarriak tente eskolako gazteenak, eta kantu-kantari ibili ziren egunean zehar bertan ikasitako abestiekin.

Errefuxiatuekin izandako  
esperientzia




**ITURBURU** ikastetxean Iñigo Unzetaren bisita izan dugu. Esperientzia aparta kontatzera etorri zitzaigun, Grezian errefuxiatuei laguntzen bizi izan zuena. Aurreko

gabonetako oporretan bolondres bezala abiatu zen Lesbos irlara. Bertan ikusi, sentitu eta egin zuena kontatu zien 4. mailakoei. Mediterraneo itsasoan "Salvamento Marítimo humanitario" taldearen barruan aritu zen gure ikasle ohi den Iñigo. Neska-mutilak aho zabalik eta hunkituta utzi zituen azaldutako datuekin eta ikusi ahal izan zituzten argazkiekin. Mila esker, Iñigo, eskoletara zuen ahaleginak hurbiltzeagatik!



**URKIZU** ikastetxeko ikasleek igeriketa-ikastaroekin jarraitu dute, eta 4. mailakoek Herri Kirolak egin dituzte. Aratosteak prestatzen ere denbora dexente eman dugu, baina merezi izan du! Dena irten delako zoragarri!



# ONTZI DIBERTIGARRIAK

Zure anai-arrebek edo lagunek arkatza hartzera joan eta ezustekoa eramatea nahi duzu? Pausu gutxitan eta birziklatzeko materiala erabiliz arkatz eta boligrafoentzako ontzi dibertigarriak nola egin erakutsiko dizugu.

## MATERIALA

- ✓ Txanpu botila.
- ✓ Guraizeak.
- ✓ Errotulagailua.
- ✓ Akrilikoak.
- ✓ Pintzela.
- ✓ Bi aurpegiko zela.



## PAUSOAK

- 1.- Gure munstroari eman nahi diogun irudia marraztu txanpu ontzian.
- 2.- Botilaren atzeko aldean munstroaren burua marraztu eta moztu.
- 3.- Soberan geratu zaigun botila zatian eskuak marraztu eta moztu.
- 4.- Errotulagailuarekin detaileak marraztu.
- 5.- Akrilikoekin margotu.
- 6.- Eskuak zeloarekin itsatsi.



# MANKALA

**MATERIALA:** Dozena bateko arrautza kaxa bat, 48 hazi edo fitxa (babarrunak, garbantzuak ...), artaziak, kola edo zela eta margoak.

Arrautza kaxaren tapa moztu eta bi zatitan banatu. Ondoren, arrautza kaxaren albo bakoitzean tapa erdia itsatsi. Biltegiak izango dira. Margotu, haziak jarri eta JOLASTERA! (18. orrialdean dituzue jolasteko argibideak)



# BERENJENA PIZZAK

Zartagina eta labea erabili beharko dituzue, heldu batekin egin ezazue errezeta hau.

## OSAGIAK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ Berenjenak.
- ✓ Tomate frijitua edo tomate saltsa.
- ✓ Gatza.
- ✓ Oliba olioia (virgen extra).
- ✓ Birrindutako Parmesano gazta.



## PAUSOAK

- 1.- Berenjenak ondo garbitu eta 7-8mm-tako xerratan moztu. Xafiak laberako papera duen erretilan ondo zabaldu.
- 2.- Mozketa txikiak egin berenjenetan, olioia eta gatza bota, eta 15-20 minututan labean jarri 180°-tan. Denboraren erdia pasa denean, buelta eman behar da.
- 3.- Labetik kendu eta xerra bakoitzean tomatea igurtzi eta gazta bota.
- 4.- Labean sartu lau minutuz 200°-tan, gaztak urre kolorea hartu arte.

# AHABI ETA TXOKOLATEZKO BARRITAK



Ontzi batean olioia, margarina urtua, eztia, gatza eta azukrea bota eta ondo nahastu. Txokolate pipitak eta ahabiak gehitu. Ondo nahastu eta labeko papera duen erretilu laukizuzen batean ondo zabaldu. Espatula batekin lisatu, mozketak markatu eta hozkailuan ordu batzuetan gorde (gau osoa, adibidez).

## Martxoak 11, zapatua

✓ Antzerki Jardunaldiak: “Universario”.  
Coliseoan, 17:00etan

Egungo pailazo handienetakoa da Marcel Gros. Hogeita hamar urtetako ibilbidea egin ondoren eszenatokiak ez du sekreturik berarentzat.



✓ Tailerra: “Zer nolako biharra, emakumeena!”  
Armagintzaren museoan, 17:00etan

Belaunaldien arteko topaketa izango da, gazte zein helduentzat. Eibarko mundu profesionalean emakumeek duten papera ikusi ahal izango da (eta garai batean izan zutena). Izen-ematea museoan bertan 16:00etatik 16:30era, ekitaldia hasi baino lehen.



## Martxoak 18, zapatua

VII. Lore Azoka.  
Urkizun, 09:00etatik  
14:00etara

11:30ean: lore landaketari buruzko tailerra.




## Martxoak 19, domeka

Antzerki Jardunaldiak: “Magia ikuskizuna”.

Coliseoan, 17:00etan

Magoak: Mago Valen, Carlos Adriano, Imanol Ituiño, D'Albeniz eta Mago Sun.



### ARIES

*Ikasketak:* Zenbakiekin ondo arituko zara. *Maitasuna:* Bihotza lasai ibiliko da momentuz. *Asteko eguna:* Asteartea.

### TAURUS

*Ikasketak:* Gogo gehiago ipini! Ez zaitez hain alferra izan. *Maitasuna:* Pozez zoratzeko egunak izango dira. *Asteko eguna:* Larunbata

### GEMINIS

*Ikasketak:* Saiatzen zarenean, emaitzak heltzen dira. *Maitasuna:* Bihotza maitasunez betea izango duzu. *Asteko eguna:* Osteguna.

### CANCER

*Ikasketak:* Oso ondo arituko zara, arazo gabe. *Maitasuna:* Ligatzen ikasi beharko zenuke. *Asteko eguna:* Astelehena.

### LEO

*Ikasketak:* Arreta gehiago jarri beharko zenuke ikasgelan. *Maitasuna:* Berri pozgarriak jasoko dituzu. *Asteko eguna:* Osteguna.

### VIRGO

*Ikasketak:* Badakizu inork ez dizula ezer oparituko, zure esku dago. *Maitasuna:* Maite dituzun pertsonak izango dituzu inguruan. *Asteko eguna:* Astelehena.

### LIBRA

*Ikasketak:* Martxan ibiliko zara eta gogotsu. *Maitasuna:* Ez da momentu onena norbaitekin maitemintzeko. *Asteko eguna:* Larunbata.

### SCORPIUS

*Ikasketak:* Albokoari ez kopiatu! *Maitasuna:* Maitekor ibiliko zara eta denok nahiko dute zurekin egon. *Asteko eguna:* Asteartea.

### SAGITARIUS

*Ikasketak:* Aste Santuko oporrak heltzeko denbora falta da, animo! *Maitasuna:* Pentsatu al duzu maite duzun horri zerbait esatea? *Asteko eguna:* Asteazkena.

### CAPRICORNIUS

*Ikasketak:* Argi dago zergatik gustatzen zaizun hainbeste jolastordua. *Maitasuna:* Lagunen maitasuna, hori bai benetako maitasuna! *Asteko eguna:* Ostirala.

### ACUARIUS

*Ikasketak:* Matematiketan arazoak izango dituzu, bestela bikain! *Maitasuna:* Pertsona berezi bat ezagutuko duzu. *Asteko eguna:* Larunbata.

### PISCIS

*Ikasketak:* Noiz irakurri zenuen azken liburua? Ez galdu ohitura! *Maitasuna:* Hitz politikak jasoko dituzu pertsona berezi batengandik. *Asteko eguna:* Asteartea.






**HARTZATXOA, JIRAFAZAHARRA ETA HARRIZKO PARETA (6 urtetik aurrera)**

Zoo bat eta, han, hartz txiki eta triste bat. Zorionez, auzoan duen jirafak alaitu egiten dizkio egunak kanpoko aldean, harrizko paretaren beste aldean, gertatzen den guztiaren inguruko istorioak kontatuz. Bizitzako hainbat egoerataraz egokitze moduko fabula da honako hau. Haur ginela kontatu zizkiguten ipuinen alegoria bat da, non mundu zoragarri bat irudikatzen genuen.



**AKIM IHESI (8 urtetik aurrera)**

Ume baten bizipen latzak jasotzen dituen kronika da Akim ihesi. Gerraren indarkeria pairatu eta ihes egin behar izan du Akim-ek; bere etxea eta herria suntsituta ikusi ondoren, familia eta lagunak galdu ditu. Soldadu batzuek atzemango dute handik gutxira, eta haien esklabo bihurtuko da ihes egitea lortzen duen arte... Akim-en istorioa gogorra da, baina ez da bakarra.




**CATHERINE CERTITUDE (10 urtetik aurrera)**

Aitak bezala, Catherine txikiak betaurrekoak dauzka. Eta ama bezalako dantzaria izatea du amets. Dantza egiteko betaurrekoak kentzera behartua, Catherinek bi modutan bizi ahal izatearen abantailak deskubritzen ditu: batetik, modu erreala, betaurrekoak jantzita dituenean; bestetik, goxotasunez betetako mundu lauso lazturarik gabea, kentzen dituenean. Betaurrekorik gabeko mundu horretan, amets batean balego bezala dantzatzen du.




**ALTXORRAREN UHARTEA (6 urtetik aurrera)**

Jim Hawkins gaztetxoak, ustekabean, altxor ezkutu bat aurkitzeko mapa baten berri jakiten du. Sir John-ekin eta herriko sendagilearekin batera, abentura bizi-bizia izango du, baina pirata beldurgarri batzuei aurre egin beharko die.



**MIDASEN ERAZTUNA (8 urtetik aurrera)**

Xabierri lagunak Midas esaten diote: ez dute oso maite, eta haien gezurren eraginez gizajoari irakasleak asto belarriak ipini dizkio. Gainera, mutikoen lehenbailehen gizondu nahi dute: bizarra hazteko, nesken gogokoak izateko, ahulak baztertzeko! Baina horretarako Zangozako zubitik ibaira jauzi egin behar omen da, eta ibaiak ur handi bulartsuak dakartza! Horra istorioa, baina hori bezain erakargarria da kontatzeko modua, modu animaliatua!



**ZESTOAKO LOROA - LORO BIHURRI BAT TREN GELTOKIAN (10 urtetik aurrera)**

Gineatik Zestoara ekarri zuten Pepe, loro sinpatikoa, eta ez zuen gehiago herri honetatik alde egin nahi izan. Hementxe bizi izan zen zoriontsu, gehienbat tren geltokian. Balneariora zetorren handizki jendea handik pasatzen zen, baina haiek bezalaxe maite zuen Pepek herriko jende xehea. Okerrena etorri zen trenak abiatzeko txilibitua jotzen ikasi zuenean!!!




Erroma hiria Romulo izeneko gizon batek sortu zuen. Romulok biki bat zeukan, Remo, eta otseme batek hazi zituen bi anaiak.




Antardida Hego poloan dagoen kontinente handia da eta izotzaz estalita dago. Zenbait lekutan izotzak 5 Km-tako lodiera dauka.



Australiako 2 heren baino gehiago desertu erraldoi batek estalita dago.



Saguzarrek soinuak erabiltzen dituzte iluntasunean orientatzeko. Soinu zorrotzak egiten dituzte eta oihartzuna entzuten dute.



Intsektuek euren gorputzak baino 20 aldiz astunagoak diren objektuak garraiatzen dituzte.



Bakailao emeak 9 milioi arraultz jar ditzake.



Kamaleoiaren mingaina bere gorputza baino bi aldiz handiagoa da.



Marrubia haziak kanpoan dituen fruitu bakarra da.



Fisikoki ezinezkoa da txerriak zerura begira jartzea.



Dalmatak jaiotzen direnean beti zuriak izaten dira.

## MUNDUKO JOLASAK

## MANKALA

Mankala familiako jolasa da. Mankala arabiar hitza da eta "mugitzeko" "mugimendua" esan nahi du. Afrika mendebaldean du jatorria, baina egun, munduko txoko desberdinetan ere jolasten da. Izen desberdinez ezagutzen da: owari, owari, oyo, awari, warri, awale, bao, giuthi, lelel, omwenso, tei, songo, kalaha... Tokiaren arabera joko honen hainbat modalitate ezagutzen dira.

### NOLA JOLASTU:


Sortutako tableroa, haziak edo fitxak eta bi pertsona behar dira jolasteko.

### ARAUAK:

2 jokalaria. Zulotxo bakoitzean 4 hazi jarriko dituzte.

1. Jokalariak bere etxeko zulotxo bat aukeratu eta bertan dauden haziak hartuko ditu (1, 2, 3 edo denak).

2. Erlojuen orratzen kontrako norabidean mugituko ditu haziak, banan banan.
3. Azken hazi, kontrako jokalariaren zulotxo batean gelditzen baldin bada, eta zulo horretan 2 edo 3 hazi baldin badaude, jokalariak bertako hazi guztiak hartu ahal izango ditu eta bere biltegian gorde. Ezer ez baldin badago, jokoak aurrera jarraitzen du.
4. Txanda hurrengo jokalariari pasako zaio.
5. Jokalari batek bere etxeko zulotxoetan hazirik ez duenean jolasa amaituko da.
6. Biltegian hazi gehien dituenak irabazten du jolasa.





## ABENTUREROAK

**B**aziren behin neska eta mutil bat, Ane eta Aner deitzen ziren. Egun batean, amonak askotan hitz egin zien basora joatea erabaki zuten, amonak altxor bat ezkutatuta zegoela kontatu zielako. Bidean, etxe handi batekin topo egin zuten eta Anek esan zion Anerri ikertzera joateko. Etxe hartatik sorgin bat atera zen eta beldur handia eman zenez ihesean joan ziren. Gero kobazulo ilun eta beldurgarri bat aurkitu zuten, sartu eta x bat aurkitu zuten lurrean margotuta eta zulo bat egin zuten x zegoen tokian. Zuloan, kaxa bat aurkitu zuten eta barruan mapa bat zegoen eta ur-jauzien atzean beste x bat zegoela adierazten zuen. Ur-jauzi ikaragarria aurkitu zuten eta bertako x-ean zuloa egin zuten eta beste kaxa bat aurkitu zuten. Kaxaren barruan dirua eta karta bat zeuden. Kartan hau ipintzen zuen:



“mesedez, ez gastatu dirua tontakerietan, adibidez gazteluak erosten, kotxe oso garestietan... Dirua behar duen norbaiti eman”. Anek eta Anerrek dirua hartu eta herrira jaitsi ziren eta pobre bati erdia eman zioten eta lapur bat etorri zen eta beraiei beste erdia kendu zien. Orduan, pobreak geratu ziren eta behartsua berriro agertu zen eta dirua beraiekin partekatu zuen. Orditik aurrera denak batera bizi izen ziren.

Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Urkizuko plazan.

**Achraf, Mohamed eta Eneko**

Eskatu aitari edo  
amari ipuin hau gaur  
gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



zu margolari!